


Edorta Río, Ibai Mendiguren, Mikel Osa, Nora Salaberria eta June Iburguen

MENDISH

Aplikazio berri bat proposatzeko asmotan gaude. Gure aplikazioaren berezitasuna honakoa da: Alferrik galduko ziren elikagaiak berreskuratzeko aukera emango luke, zaborretara bota beharrean. Berrikuntza honekin, hainbat elikagai salbatuko ditugu. Mendish aplikazioa Android eta IOS gailuetarako doako aplikazio bat izango da. Horri esker, jatetxeetako kalitatezko janaria lor dezakezu, berezko prezioaren erdian edo gutxiagoren truke. Ez dago ez tranparik, ezta ezkutuko baldintzarik ere, aplikazioari esker kalitatezko janaria lortuko duzu prezio paregabe.



Mendish aplikazioari esker zure inguruko lokaleetan, saldu gabeko janaria eskuratzeko aukera edukiko duzu: jatetxeak, supermerkatuak, okindegiak, etab. Egunaren amaieran saldu gabe geratu diren produktu asko zaborretara botatzen dira, izan ere, hurrengo egunean ezin da saldu, baina gure aplikazioari esker elikagai guzti horiek erosteko aukera edukiko duzu lehen esan bezala prezio paregabe.



Aplikazioa erabili nahi duen jendearentzat funtzionamendua oso erraza izango litzateke: lehenik aplikazioa instalatu behar da google play bidez, ondoren erregistratu egin behar zara, jarraitzeko zerrenda bat agertuko zaizu eta bertan gehien gustatzen zaizun establezimendua aukeratzen duzu edo app-ak eskaintzen duen maparen bidez ere aukeratzeko aukera edukiko duzu (mapak gertuen dituzunak adierazten dizkizu), azkenik aplikazioaren bitartez ordaindu eta adostutako tokian eta ordutegian jaso beharko duzu zure janaria.

Hau martxan jartzeko denden azalean jarri gara eta ondorio bat atera dugu; Elikagaien industriaren negozioentzat ez da zentzuzkoa elikagai berriak eta egoera onean daudenak zakarretara botatzea. Horretarako, gure bazkide bihurtuko dira, nahi duten denda, supermerkatu, pasteleri... guztiak eta laguntzaileei onura gehigarria lortzeko aukera emango diegu, eta, aldi berean, bezero berriak erakarriko ditugu, gainera horrela, lehen aipatu bezala, jasagarritasunaren esparruan parte hartzen dugu.

Mendishen aukera ematen dizu janari gutxiago alferrik galtzeko eta bestela zaborretara botako litzatekeen soberakinarekin dirua berreskuratzeko. Aplikazioan egoteak bezero berriei zure negozioa ezagutzen laguntzen die.

Dendak izatearen kasuan gurekin kontaktuan jartzea oso erraza da. Beraiek erosle moduan Mendish aplikazioa instalatu beharko dute baina izen emateko garaian denda bezala erregistratu beharko dira. Honi esker aplikazioarekin kontaktuan jarriko dira eta beraien produktuak argitaratzeko aukera izango dute, beraien prezioan eta beraien baldintzetan.

Eroslearen kasuan berriz bidea motzagoa da, bezeroak aplikazioa instalatu beharko du eta erregistratu ondoren erosten hasteko aukera edukiko du. Berak erosketa egin ondoren tiket digital bat jasoko du gmail bidez eta hori erakutxi beharko du janari boltsa bildu ahal izateko.

Saldutako pack bakoitzeko establezimenduei kobratuko diegun komisio-portzentaje baten bidez finantziatuko dugu aplikazioa, zehazki %20 eta %30 artean.